

# Goierritarra

349. zenbakia 2008ko urriak 24

**MIKEL ZURBANO  
IRAKASLEAREKIN**

# KRISIAZ HIZKETAN

**faktore**  
KOMUNIKAZIO  
GRAFIKOA

↓  
Oriamendi, 37 Behea  
20200 Beasain Gipuzkoa  
T/F 943 088 169  
faktore@faktore.net  
www.faktore.net

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA  
ETA KOMUNIKAZIOA

# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal  
ZENTRO MEDIKUA  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea  
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU  
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

## BERTSOTAN

## Jose Insaustik ehiztariei eta ehizari jarriak

Egoaizea pil-pil-pil gauean baldin badabil, eiztaria usorik gabe ezin egon trankil; mendi zorrotz da biribil zapalduko ditu abil, esanaz; "Igaz gaurko egunez ogei nituan il".

Aurten baiño ugariago botatzerik ez badago, aitzekin batzuk asmatzeakin ni konforme nago; dijoz geroz da gorago edo irten urrutiago, ekolojistak izan dezaten atsedean geiago.

Ekolojistaren txanda batzuntzat txarra izan da, alper-alperrik daudela ere askotxo esan da; baiño zeozer bear da eiza babestuko bada; bestela nunai amua pronto, noiznai dinbi-danba.

Jose Insausti segurarraren 'Beti bertsoa buruan' liburutik. 'Bertso berriak eiztari eta eizari jarriak' 12 bertso sortatik, hiru bertso.

**Doinua:** Ai zak hi mutil mainontzi.

## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

#### Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

### Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AURKIBIDEA

4. **Kolaborazioa:** Idurre Eskisabel Larrañaga.
5. **Ingurugiro txokoa:** EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (eta VI).
6. **Aholkua:** Umetatik hortzak zaintzearen garrantzia.
7. **Esperientziaren leihoa:** Esperientzia eskola.
8. **Elkarrizketa:** Mikel Zurbano ekonomialari beasaindarrarekin krisiaz hizketan.
14. **Erreportajea:** Jose Mari Faus ordiziar ornitologoa.
20. **Goierritar berriak:** Celia Mamani boliviarra.
22. **Non zer.**
26. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Idurre Eskisabel  
Larrañaga

## Inbidiatan

**G**ustura itzuli gara etxera. Saran (Lapurdi) izan gara, Piarres Lartzabalek duela 40 urte idatzitako Ibañeta antzeslanaren azken taularatzea ikusten. Emaiza ederra: 778ko Orreaga-ko guduan oinarritu eta duela urte saldo bat idatzia izan arren batera gaurkotasunik galdu ez duen testua; eszenografia berritzailea eta aktoreen lan txukuna.

Ikusitakoari buruz berriketan etorri gara lau lagun, hausnarketa konpartituan, eta luzerako eman digu: "Ez nekien antzeslanak Meliton Manzanasi hain erreferentzia zuzena egiten zionik", dio batek. "Bai ziria ondo ibili zuen Lartzabalek Karlomagnoren tropetako torturatzaile nagusiari Apfel izena jartzean, sagarra, manzana, baita apfel alemanez", besteak. "Eta izebaren pertsonaia? Oso ona gazteei 'ez sartu politikan, ez sartu arazotan' ohartzarazten dienean. Gauza batzuk ez dira aldatzen", hirugarrenak. "Horixe ez direla aldatzen! Pentsa, borroka armatuaren auzia planteatzen du Lartzabalek antzeslanean, eta begira 40 urte eta gero nola jarraitzen dugun...", erantzun du lehenak. "Bai, ikasiko dugu noizbait!", atera zait niri.


Argudioen eta kontrargudioen jolas horretan ohartu gabe iritsi gara etxera. Esan bezala, gustura. Baina, era berean, baita inbidiatan ere. Inbidiatan Ibañeta an-

tzeslanaren moldaketa berri hori Nafarroa Behereko Haizeberri elkarteak osatu duelako, Ander Lipus antzerkilari bizkaitarrak zuzendu eta gidatu baditu ere, aktore talde erabat amateurrarekin. Ez du erraza ematen 1.700 biztanle inguruko Oztibarre eskualdean halako aktore amateur taldea biltzea, eta are eta gutxiago, halako antzeslan bat taulartzeko behar diren beste lanetarako jendea eskuratzea. Baina, bistan denez, egin dute, eta arestian aipatu bezala, emaitza bikainarekin.

Horretaz guztiaz ere aritu gara etxerako bidaia berriketatsu horretan. Ipar Euskal Herrian, batik bat, barnealdean, kultur ekoizpen propiorako eta elkarlanerako joera handia dutela oraindik iritzi dio batek. Antzerki amateurraren tradizioa gurearen aldean handia dela besteak. Hegoaldean kultura hiritarrarekin batera astialdi kontsumista eta indibidualismoa jaun eta jabe egin zaizkigula hirugarrenak. Oraingoan isilik geratu naiz ni.

Eta etxean jarraitzen dut horri bueltaka, eta egia, lehen une batean zail egin zait nire inguruko Beasain halako antzeslan herritar baten proiektuan murgilduta irudikatzea. Baina bestelako printzak argitu zaizkit segituan: Mariren Jaitsierak, adibidez, badu halako herri antzerkien jitea, eta zer esanik ez, Aurtzakak bideratu duen Beasaingo dantzari kofradiak eta Igartzako dantzarien egunak. Azken horrek kanpoko -hurbileko zein urruneko- kultur esperientziaren inbidiarik ez du batera. Eta inbidia baretzarekin batera, itxaropen bat piztu zait: akaso, hitzetik hortzera darabilgun krisi hori nagusitzeak izan dezakeela onerako eragina; hain justu, gure astialdia merkataritza guneeetatik atera eta antzerki, dantza eta bestelako sormen ekoizpen amateurretara eramatea.

*Mariren Jaitsierak, adibidez, badu halako herri antzerkien jitea, eta zer esanik ez, Aurtzakak bideratu duen Beasaingo dantzari kofradiak eta Igartzako dantzarien egunak.*



**MUJIKALIBURUDENDA**

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

**ZAHARRA • BERRI**  
**IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA**

A. Almeida  
943 180 372  
651 700 439  
aiakoerrot@terra.es  
ATAUN



Eraikuntzak  
Gremioen koordinaketa  
Erreforma orokorrak  
Teilatuak

# EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (eta VI)

## Koipua

(*Myocastor coypus*)

**Itxura:** Tamaina ertaineko karraskaria da, 60 zm-rainoko gorputza eta 30-40 zm-tako isatsa dituena. Arra emea baino handiagoa da. Jatorria: Hegoamerika.

### Historia eta hedapena:

Nahita sartu zuten Frantzia XIX. mendean bere larruaren ustiapenarengatik. Bere hedapena inguru naturalean ihesak eta uzteen ondorioa dira. Uretako habitatetara lotuta dagoen espeziea da. EAE-n Gipuzkoako ekialdean aurki daitezke, Bidaso eta Oiarzungo arroetan.



### Ondorio negatiboak:

- Landare irenslere bikaina da, batzuen desagertzea bultzatzen duelarik.
- Uretako landaredia jaten duenez, hegazti batzuen habiagintza espazioa murrizten dute.
- Nekazaritzan kalte ekonomikoak eragin ditzake, laborantza mota ezberdinetan ibiltzen baita.



SEO-Birdlife (Jordi Clavell)


## Beltxarga beltza

(*Cygnus atratus*)

Australiakoa, sartu den hainbat lekutan izurrite bihurtu dira. Belarra, zapaburuak eta igelak jaten ditu eta adibidez, Debako hezeguneentzat mehatxu handia suposatzen dute. Oso lurraldekoiak eta oldarkorrak dira, beste hegaztiei euren lurretara hurbiltzen utziko ez dietelarik.

## Guk, zerbait egin al dezakegu, espezie inbaditzaileak ez zabaltzeko?

- ✓ Ez zabaldu landaririk edo hazirik.
- ✓ Gogoan izan espezie inbaditzaileak direla, mundu zabalean, espezieak desagertzearen arrazoi nagusienetako bat.
- ✓ Inguruak edertzea baldin bada kontua, aukera itzazu bertako espezieak.
- ✓ Ez askatu animalia exotikorik naturan.
- ✓ Konpainiako animalia bat erostekotan, ez aukeratu espezie exotikorik.
- ✓ Bidaietatik ez ekarri izaki bizidunik. Sorlekuan hobeki bizi dira eta, gainera, ez dute arazorik sortzen.
- ✓ Ez eman janik, euren onerako da.



Ibialde monografikoak - Hezkuntza eta Ingurumen Sailak

## JAKIN BEHARREKOAK

### Oianguri buruzko herri

**kontsulta:** Ordiziako Plaza Nagusian, larunbatean, urriaren 25ean, goizeko 10etatik arratsaldeko 8rak arte. Antolatzailea: Oianguru Publikoa eta Bizirik Plataforma.

### 2008 Natur Jardunaldia

Donostian, azaroaren 14an eta 15ean. Aranzadi zientzia elkarteak antolatutako. Itsas dortoka izango da jardunaldia hauen hizpide, zehazki Bizkaiko Golkoko eta ozeano Atlantarrekoa. Aranzadi zientzietako web orria.

### Nafarroako ekologistak

**Martxan** Nekazal Garapenerako eta Ingurumen sailari olibaondoak jartzeko baimena ukatzea eskatu diote. 275 hektarea olibaondo, ureztapenarekin jartzeko proiektuak Lerin aldeko lehorreko laboreak eraldatuko luke. Estepako Hegaztientzako garrantzi handiko tokia da eta gartzeko zorian dagoen Avutardak bizi ziklo osoa bertan egiten du, ZEPA (Hegaztientzako Babes Berezi-ko alderdia) bezala izendatu beharko litzateke inguru hau. Bestalde, Ablitas aldean ehun urtetik gorako olibaondoak kentzen ari dira.

Ben Magec/ Ecologistas en accion Kanariar uhartekoak, **Ingurugiro saria** eman diote Red Canaria de Escuelas Solidarias giza eskubideen alde eta ingurumenaren alde egin duten lanarengatik, azkeneko hamar urte hauetan.

Beti egoten gara gure umeen osasuna zaintzen, eta honela handitzen direnean pertsona osasuntsu izan daitezkeelarik. Era berean umeen hortzak oso garrantzitsuak dira. Ondo zaintzen badira, heldutasunean ez dute hainbeste arazo izango. Hortarako, umeari erakutsi behar zaio hortzak garbitzen, ikus dadila oso gauza ona dela berarentzat.

### Lehenengo hortzak

Agertzen diren lehenengo hortzak lau inzisiboak izaten dira (goiko bi eta beheko bi erdiko hortzak), umeak sei hilabete eta urte bat bete bitartean. Bolada honetan entziak sentikorrek eta minduta edukitzen dituzte, eta gorritasun edo inflamazio itxurarekin. Umeak daukaten mintasuna apaltzeko plastikozko dispositiboak egoten dira, hozkailuan sartu eta era horretan umeak kosk egiten duenean piska bat entziak lasaituz.

Hiru urte inguru ditueanean ume gehienek hortz guztiak dituzte ahoan (esnezko hoge hortzak). Az-

kenean hortzak erori egiten dira eta betirako izango diren hortzak irtengo dira, baina horrek ez du esan nahi esnezko hortzei ez zaiela kasorik egin behar; zeren esnezko hortzetan gaisotasun bat izanez gero, betirako diren hortzetan arazoren bat agertu bai daiteke.

### Betirako hortzak

Gutxi gora behera umeak sei urterekin esnezko hortzak galtzen hasiko dira. Prozesu honek hamabi edo hamahiru urte arte irauten du. Eta hemezortzi urterekin juiziozko haginak irtezen hasten dira.

### Hortzak garbitzen ikasten

Umeak hortzak garbitzeko ohitura hartzen badu, geroago ez dugu ibili beharko bere atzetik errietan eginez ea hortzak garbitu dituen ala ez. Horretarako oso txikitatik erakutsi behar zaio, adibidez eskuak bazkal aurretik garbitu behar diren bezala ohitura hartuz.

Adin guztietarako daude hortzetako zepiloak eta zapo goxoa duten pastak,

kontutan edukiz, azken hauek, fluor kantitate egokia izan behar dutela. Era honetan umeari jolas bat dela irudituko zaio.

### Hortzetako gaixotasunak

Gaixotasun ohikoena kariеса da. Enpaste bat eginez arazoa konpondu egiten da baina kontuz, esnezko hortzek oso nerbio handia dute eta laister min hartu dezakete. Gainera esnezko hortz azpian betirako hortza dator eta edozer gauzogatik infektzioa sortzen baldin bada, lehen aipatu bezala, betirako hortzetan arazoak agertu daitezke.

Baita ere kontutan izan behar da hortz bat behar den baino lehenago galtzen bada, betirako hortza oker atera daitekeela.

Eta azkenik juiziozko haginak aipatu. Badaude umeak inoiz ez dituztela edukiko, baina normalena da hezuraren barruan geratzea edo oker irtetzea, ondoko hortzak mugituz edo kalteak eraginez.

Honenbestez, aurten behin garrantsitsua da umea bere dentistara eramatea



**Nerea Larrea Oiarbide**  
Odontologo zirujaua  
Beasain

kontrol bat egiteko, guk helduok egiten dugun bezala. Era honetan, umeak hortzetako arazo bat badu, bere soluzioa jarri daiteke gehiegi itxaron gabe; zenbat eta lehenago arazoak konpondu, umeak handitzerakoan aho osasuntsu eta hortz indartsuak eduki ditzakeelarik. Aldi berean, eta konturatu gabe arreta gehiagoz zainduko ditugu gure hortzak, gure umeei exenplua emanez.

### Umearen adina Hortzak

<b>4-24 hilabete</b> . . . . .	Lehenengo esnezko hortzak. . . . .	<b>Gurasoak</b> garbitzen dituzte umearen hortzak.
<b>2-4 urte</b> . . . . .	Esnezko hortz guztiak ahoan. . . . .	Umeak garbitzen ditu bere hortzak gurasoen laguntzarekin.
<b>5-7 urte</b> . . . . .	Betiko hortzak irtetzen hasten dira. . . . .	Bakarrik garbitzen ditu hortzak ia gurasoek lagundu gabe.
<b>+8 urte</b> . . . . .	Esnezko eta betirako hortzak nahastuta. . . . .	Bakarrik moldatzen dira ahoa garbitzen.

### Garbitasuna

<b>Gurasoak</b> garbitzen dituzte umearen hortzak.
Umeak garbitzen ditu bere hortzak gurasoen laguntzarekin.
Bakarrik garbitzen ditu hortzak ia gurasoek lagundu gabe.
Bakarrik moldatzen dira ahoa garbitzen.

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239



**Lurrindegia eta opari gaiak**

**PSIKOLOGI KLINIKOA**



Jose Ramon Pato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS-42001

**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak**



# Esperientzia eskola

Martxan jarri da 2008-2009 Esperientzia eskolako ikasturte berria. Aurreko urriaren 17an, hasiera eman zitzaion ofizialki ikasturte berriari. Proiektua antolatzen duten erakundeak eta baita babesleak ere hitz batzuk izan zituzten ikasle berriei animoak emateko eta baita proiektu aberasgarri honek erein dituen fruituak gorai-patzeko.

Hizlariak amaitu ondoren, ikasturtea ekainean bukatutako ikasleei diplomak banatu zitzaizkien, egindako ikasturtearen ziurtagiri moduan.

## Zer berri ikasturte honetan?

Ikasgaiak ugariak izango dira, filosofia, ekonomia, zientzia eta teknologia e.a. baina hauetaz gain, ikasgai



berriak aurki ditzakegu. Esaterako aurten, pasa den urriaren 21,22 eta 23an Jesús Torquemada Kazetari ospetsuaren eskutik politika internazionalaren egoera ezagutzeko aukera izan genuen.

Horretaz gain, aldaketa

klamatikoaren ondorioei buruzko saioa izango dugu, Eduardo Ochoa biologia zientzietako doktoareekin. Kooperazio gaia ere kontuan izango da aurtengo urtean, honela Iparra eta Hegoaren arteko desberdintasunak aztertu eta esplikatuko dira.

Antolatzaileak jakinarazi nahi dute, besteetan bezala, aurtengo urtea ere paregabea izango dela. Informazio gehiago nahi duenak Goiekira 943 161537 telefonora edo Uggasara 943 725830 deitu dezake.



**mazda** ☎ 943 889 296  
 Faxe: 943 887 952  
 N-1 errep. 419 Kma  
**Bikar, S. A.** BEASAIN



Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
 barne diseinua  
 dekorazioa

Garai berrietarako  
 ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
 Tel.: 943 16 40 40  
 BEASAIN

## Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin  aukeratutako kaxan

**Goierri** 26 euro       **Goierri** + **GOIERRIKO hitza** 70 euro

**GOIBESKO hitza** 65 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela  
 helbide honetara:  
 Goierritarra  
 Urbialde plaza 7 behea  
 Beasain

Harpidedunen  
 arreta zenbakia:  
 902 82 02 01



*Mikel Zurbano  
ekonomialari beasaindarra:*

## “Oraingo krisia oso berezia izaten ari da”

**K**ristalezko bola atera eta azken aldiko krisiaren etorkizuna igartzea nahiko balu ere, ez du erantzun magikorik. Krisiaren nondik norakoaz eta etorkizunaz mintzatu zaigu, zuhurtasunez, Mikel Zurbano, Euskal Herriko Unibertsitateko ekonomia irakasle, Beasaingo Errotako semea. Krisiak ustekabean harrapatu ez badu ere, ez zuen hain-

bestekoa espero. Estatuaren laguntzarekin finantza krisia gaindituko dela dio, ekonomia errealean izango duen eragina ikusteko badago ere. Goierri nahiko ondo ikusten du, nahiz eta enpresa batzuk hasiak diren arazoekin. 2008ko krisia, historian hizki gorritz idatziko da. Krisi garaia, ikasketarako eta hausnarketarako unea izan beharko litzatekeela uste du.

**over** Urraki  
*Bidaietan adituak*

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

**ALDANONDO GARAJEA**  
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko llantak  
Filtroak, olioak,  
engrasea  
Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak  
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



**Zenbakiak gora eta behe-  
ra, burtsa, banketxeak,  
bermeak, krisia... beste  
konturik ez dago komu-  
nikabideetan eta herrita-  
rrok gehiegi ez dugu uler-  
tzen nahiz eta azkenal-  
dian ekonomiaz asko hitz  
egin. Zer ari da gerta-  
tzen?**

Ulertu, geuk ere ez. Batzu-  
tan esaten dugu, aspalditik  
ari ginela, ez hau iragartzen,  
baina zerbait gaizki zihoala-  
ren seinaleak bazeudeula  
esaten. Baina gerora zein  
ibilbide egingo duen jakitea  
zailagoa da asmatzea.

Hilabete batzuetako  
kontua dela esaten dute bat-  
zuek, baina hori ez dago  
jakiterik. Halako zantzu bat-  
zuek sumatzen dira hartzen  
diren neurrien arabera. Atzoko  
(Urriak 12) Europako  
finantza ministroen bile-  
ratik ateratako neurriekin,

ongibideratu daiteke (Euro-  
pako 15 herrialdek, diru pu-  
blikoarekin bankuak birka-  
pitalizatzea da, haietako  
inork porrot egin ez zezan).  
Baina krisia hain indartsua  
izan da eta beste krisiekiko  
hain ezberdina. Oraingoa  
oso berezia izaten ari da.

**Zantzuak aipatu dituzu.  
Zeintzuk adibidez?**

Etxebizitzaren kasuarekin  
adibidez, hemen, Estatuan.  
AEBetan ezberdinak izan  
dira, higiezin burbuilaren  
leherketak arrazoi ezberdi-  
nengatik gertatu dira. Etxe-  
bizitzak beti izan dira gares-  
ti samarrak. Batzuetan, pre-  
zio hobean, edo okerrago-  
an. Baina beti proportzioa  
egon da soldataren artean.  
Proportzioa 1etik 10ekoa  
izaten da gehienez jota,  
orain ikusten zen erabat  
disparatuta zegoela. Hori ez  
da batere normala.

Eta baita ere ikusten ari  
zen, zenbait kasutan kon-  
tsumoaren trasbase bat  
ematen ari zela, alokairua.  
Oraindik ere askoz ere mer-  
keagoa ateratzen delako  
alokairua, etxebizitzaren  
erosketa baino.

Ez dakit gehiegi ezagu-  
tzen dudana ekonomia mun-  
dua, beharbada batzuek beste-  
koak baino gehiago bai, eta  
ez nau gehiegi harritu albis-  
te honek. Harritu nauena da  
agian, duela urtebete gerta-  
tutako zabor hipoteka ho-  
rien fenomeno eman zene-  
an, hori egon ziren zantzu  
batzuek, gero izugarriko au-  
pada izan dutela. Ikusita zer  
nolako dimentsioa hartu  
duen, hainbat banketxe na-  
zionalizatzeraino, zer eta  
AEBetan eta Erresuma Ba-  
tuan, horiek izanda, libera-  
lismo ekonomikoaren he-  
rrialde sinboloak. Uda par-

tean ikusten zen dagoeneko  
aldaketa bazetorrela.

Hemendik aurrera, fi-  
nantza merkatuetan ez da  
azken 30 urteetan izandako  
itxurarik izango. Estatu hori  
dagoelako, finantza siste-  
mak ez du porrotik egin.  
Estatuagatik izango ez ba-  
litz, honek beste dimentsio  
bat hartuko luke, hau da, fi-  
nantza sistemaren deusezta-  
keta.

Azken urteetan egon  
den eztabaida, merkatua eta  
estatu, estatuak parte hartu  
behar du merkatuan ala  
ez... liberalenek ezezkoa  
zieten. Ikusi da, egoera la-  
rrietan, estatuaren parte  
harrenik gabe, sistemak  
berak porroterako baldintza  
guztiak dituela, merkatuak  
bakarrik ezin duela bere bi-  
zitzia bermatu. Hori izan da  
krisi honen irakaspena. Oso  
nabarmen gelditu da. Beste

## Amerikako Estatu Batuetako krisiaz

“Ipar Amerikako krisiak orain dela urtebetetik hona izan duen leherketaren arrazoia beste bat izan da. Finantza arlo zabal horretan, urteetan beste prozesu bitxi bat gertatu zen eta hori ere nolabaiteko loturagatik sortu zen. Ekonomia errealerako edo produktiorako (industria, nekazaritza...) horren beharretara egokitutako sistema bat bezala jaio zen bere garaian, orain dela hiruzpalau mende. Lotura hori mantendu izan da urteetan: finantza baliabideen kopurua eta produktio beharrak lotuta egon dira, hartueman bat eman da eta ez da egon 90.eko hamarkadatik hona egon den autonomizazio izugarria.

Finantza arloa bere logikarekin funtzionatzen hasi da eta arlo produktiboarekin zuen lotura apurtzen. Apurketa horren adibiderik deigarriena, mugitzen hasia zen diru maila hori zen. Edozein eragiketa produktibo egiteko maileguak eta diru likidezia behar da. Behar horietarako 100 behar izan behar badira, finantza merkatuan 10.000 zeuden. Proportzio hori geroz eta gehiago luzatzen joan da. Hori neurri batean da, finantza merkatuetan, 90.eko hamarkadatik, apli-

katzen hasi ziren politika ekonomiko jakin batzuek, liberalak. Liberalizazio uhina etorri zen 90.eko hamarkadan. Hortik aurrera zer gertatu zen? Finantza sisteman zeuden kontrol mekanismo gehienak, pixkanaka-pixkanaka, desagiten joan dira. Orduan, salerosketa horien kontrol publikorik ez zegoen, eta pribatua, teoriarik bazeuden, baina huts egite handiak egin di-



tuztenak. Kontrol publikorik ez eta pribatua ere oso ahula. Huts egite galantak egin dituzte, ez dakit nahita edo ezjakintasunagatik gertatu diren. Terreno guztia horretarako ongarrirua dago. Hau da, egin diren astakeria guztiak gauzatu ahal izateko, inolako kontrol mekanismorik ez da egon eta horrek elikatu du burbuila.

Azkeneko 10 urteetan, autore ezberdinak eta azterketa ezberdinak horren beldur ziren. Alarma gorriak piztuak zituzten, kontrol publiko guztiak desagitearekin batera. Merkatu horietan gainera, finantza ingenieritzaren aplikazioa egin da. Hor zer gertatu da? Gero eta produktu konplikatuagoak, konplexuagoak, inork ulertzen ez dituen produktuak gauzatu dira finantza ingenieritzaren bitartez.

Finantza ingenieritzarekin batera, biderkatu egin da nazioarteko finantza merkatu global horietan zegoen diru kopuru osoa. Aspalditik izen propio bat zeukan fenomeno horrek: finantzarizazioa. Azken hamar hauetan horretaz hitz egiten aritu gara batzuek. Finantzarizazioa azken batean hori da: kontrol publikorik eza, baliabide izugarriak, oso desproporzionatuak ekonomia erreala izan dituen beharrekiko. Eta izugarriko etekin meta-keta suertatzen ari zen”.

## Hausnarketa garaia

"Niri ez zait sistema gustatzen eta nahiko nuke beste bat izatea, baina gaur egun, batez ere Soviet Batasunak porrota izan zuenetik, ez dago alternatiba eraikigarri bat momentu honetan. Krisia oso momentu egokia izan liteke alternatibak plazaratzeko eta alternatiba horien alde egiteko. Gaur egun ahuldade hori dago eta ez dago aukerarik. Hausnartzeko momentu ona da, azken urteetan hartu dugun garapen ereduaren inguruan. Garapen eredu garbi dago, oso iraungaitza dela, disparekotasun handiak sortu dituen eredu dela, nahiz eta datu onak eman, errenta asko handitu gure gizartean, baina horren banaketa ere ez da hain ona izan. Batzuk asko daukate eta beste batzuk miseri gorriko egoeran daude. Horren inguruan azterketa eta hausnarketa egiteko garai egokia da krisi garaia. Hurrengoan zer datorrenari begira gaude eta hausnarketarako ez dugu denbora gehiegirik".

bolada baterako irakaspen hori aplikatzen ari dira dagoeneko, nazionalizazioekin. Nork esan duela urtebete hau gauzatuko zenik!

Beste arlo batzuetan, azken 20-30 urteetako dinamika guztiz kontrakoak izan dira: nazionalizatuak zeuden enpresa publikoak privatizatu edo desegin egiten ziren, estatuaren parte harmona gutxitu edo ezeztatzen. Hegoaldeko hainbat herrialdeetan, Bolivian, Brasilen edo Venezuelan, zenbait nazionalizazio prozesu eman dira azken urteetan eta ikusi dugu horren aurrean zenbait estatuk izan duten jarrera agresiboa, erabateko aurkakotasuna. Eta orain larritasunak aginduta, egoerak aginduta, beraiek kritikatu dutena egin behar izan dute. Hor agertzen da hipokrisia. Askotan giza eskubideen aurkako neurri bezala hartua izan da, Boliiviaren kasuan, argumentu hori erabili zuten, gasaren nazionalizazioarekin. Orain

errealitateak, bere lekuan jartzen du bakoitza.

### **Estatuaren parte hartze honekin egoerari buelta emango zaio?**

Garbi dagoena estatuaren konpromisoa erabatekoa dela eta horrekin buelta emango zaio finantza krisi honi, seguru baietz. Estatuak moneta inprimatzeko makina daukate eta horri emanez gero, likidezia arazoak arindu egin ditzake. Estatuak badauka nahiko indar finantza krisiaren egoeraren larriena arintzeko, hori zalantzarik gabe. Estatuak oso indartsuak dira. Urriaren 12an hartutako neurri amankomun horiek askoz ere indar gehiago ematen dio.

Hori irakurketa bat da baina horrek ondorioak ditu: neurriak hartzen dira baina neurriak ez dira inolana. Neurriak ez ditu giza sektore guztietan onura berdina eragiten. Batzuei onura gehiago eta besteek kalteak. Krisi hone-

tan beharbada ez da hori gehiegi kaleratzen ari baina horrela da. Ikusi besterik ez dago, AEBtako duela bi aste hartutako programa hori. Hango aztertzaile ugari kritikatu ugari egin dizkie. Azken finean, plan horretan, jende arruntaren diru bilketaren bitartez, dirua txertatzea lehendik ere jokabide arduragabetsu bat izan duten enpresentzat. Eztabaida handia egon da AEBetan, hemen ez bezala.

Kritika horren oinarrian dagoena zera da: nork ordaintzen du krisiaren zama? Hemen ez da horretaz eztabaidatu, ez Euskal Herrian, ez Estatuan eta Europan ere oso gutxi.

### **Herritarrak aipatu dituzu. Herritarrengan zein eragin izango du?**

Bi momentu daude. Bata, orain bizitzen ari garena da, finantza krisia. Badira batzuk aurrezkien galerak izango dituztenak. Euskal Herrian gutxiago, daukagun banka sistema nahiz eta pixka bat kutsatuta egon, badirudi, aktibo zabor batzuk erosiak zituztela, baina oso proportzio txikian, hemen eragina ez da hainbestekoa izango.

Baina gehiago izango da, ekonomia errealean izango duen eragina. Hori ere ez dago neurtzerik, baina ikusten ari gara urte hasieratik higiezin krisian

**Z**alantzarik gabe,  
**munduko finantza sistema ez da berdina  
izango hemendik aurrera.**

eragina dagoelako eta desazelerazioa beste sektore batzuetan ere eragiten duela. Etxe gutxiago egiten bada, altzari gutxiago saltzen da, elektrotresna gutxiago... kate bat da. Eta hori nozitzen ari gara. Behin-behineko langileak kalera-tzen hasi dira hainbat enpresa. Beste eragin batzuk ere baditu: enpresa asko kanpoan gehiago saltzeko ahalegin handia egiten ari dira. Orduan ikusteko dago, etorkizun hurbilean izango duen egoera.

Konfidantza krisiak nolabait sortzen du jendearengan, kontsumorako zaletasun gutxiago. Euskal Herrian eta Estatu espainiarrean, zorpetze pertsonala oso handia da eta horretan AE-Berekin oso antzeko egoera dago. Azken urteetan kontsumo maila izugarri handitzen ari zen, neurri batean, maileguak merke zeudelako eta jendea hortik tiraka ibili delako. Oporretara joateko ere maileguak eskatzen zituen jendeak. Oso mailegu errazak eta merkeak izan dira.

Orain egoera honen aurrean, bat-batean, likidezia gabeziak daude, maileguak itzultzeko zailtasunak eta hori kate bat da. Horren aurrean, kontsumoa murrizteko joera ikusten ari da eta hori denborarekin handituko dela dirudi, gutxienez, datozen hilabeteetan. Eta horrek eragina izango du

zalantzarik gabe produkzio katean.

### Lanbeziaren datua ere hor egongo da.

Langabeziarena ikusteko dago. Dena den, Euskal Herria nahiko ondo ikusten dut.

### Hala esaten ari dira. Egia al da?

Ez da aztiarena egiteagatik baina aurreko apirilean Argian elkarrizketa bat egin ziguten eta hori komentatzen genuen: Euskal Herria eta Estatu beste komunitateetan aldeak daudela eta bagenuela esperantza gehiago hemen krisiak ez hainbeste ikutzeko. Besteak beste, industria enpresek indize nahiko onak dituztelako. Enpresak nahiko ondo ibili izan dira azkenaldian, berrikuntzan sartuak daude... Industriaren pisuak ere, Hego Euskal Herria Europako handienetakoa da. Eta eragina momentuz handiena eraikuntza sektorean dago, nahiz eta beste sektoreak ere modu eratorrian ikutuko dituen.

### Automobilaren salmentaren jaitsiera ere hor dago adibidez.

Aurreneko mugimenduak

Chrisler eta General Motorren ikusten ari dira. Dena den, hori oso arrunta da. Azkenean, industria enpresek, krisiak erabiltzen dituzte beraien barne berregituraketak eta antolaketak egiteko. Kostuei aurre egiteko bat egiteak, loturak... langileak aurrezteko... eta horrekin batera beraien irabaziak areagotzeko.

Krisi garaiak garai onak dira enpresentzat, aitzakia bezala erabiltzen baita krisia kaleratzeak egiteko, saneatzeko. Eta hori ondo aprobetxatzen dute. Erabaki traumatikoak hartu eta horretatik ateratzeko aprobetxatzen da. Zalantzarik gabe, hori ere gertatuko da. Zein mailatan? Ez dakit.

Ea finantzetako eta burtsutako krisia birgidatzen hasten den, ez naiz ausartzen, baina badirudi baietz. Zenbait zantzu ba omen da horretarako. Dena den, konfidantza galera hor dago. Burtsaren errekupeazioa ez da ematen, aurrez-tzaile txikiek egiten dituzten inbertsioekin. Hemen sortu den arazoa, banku arteko maileguen eta diru truke sisteman sortu da. Hirita-

rrengana iritsi da baina konfidantza gabezia, bankuen artekoa da. Arazoa da, bankuen artean ez dituztela mailegurik ematen, ez dakitela zein puntura arte aktibo kutsatuak izango ote dituzten.

Zenbait gobernuk azpiegituren alde egin dute. Zapateroren gobernuak eraikuntza enpresei laguntza eman die. Obra erraldoiak hor daude. Eredu honen kontraesana hori da: horrelako obra erraldoiak hartzen dira ekonomiaren susperdurarako ardatzak, hori berez ona delakoan. Lehen esandako hausnarketarako denborarik hartu beharrean, berriro lehengo egoera errepikatuz. Batzuk nahiago dute etxe eraikitzaileei laguntza ematea.

### Aurrezkiez ere kezkatu da jendea. Aurrezkiak dituztenei zer esango zenieke?

Aurrezkitzaile txikiei, lasai egoteko esango nieke. Batez ere, 100.000 euroko garrantiarekin lasai egoteko. Estatu espainiarrean ez dirudi aktibo kutsatu gehiegirik dagoenik. Banketxe gehienek kapitalizazio maila nahiko ona daukate. Neurriak hartu dira eta ez du ematen arduraren handirako arrazoi handiegirik dagoenik. Gainera, Estatu indartsu baten konpromisoa dago, Europako beste 12 estatu indartsurekin koordinatu-

**Z**alantzarik gabe,  
munduko finantza sistema ez da berdina  
izango hemendik aurrera.






# ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com)    [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia    OLABERRIA



Iñusti

Hartz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zeh. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28




ta. Batez ere Ingalaterrako eta AEBetako egoerarik ez dago hemen, ez dago aktibo kutsatu gehiegirik. Hemengo kutxa eta banketxe-etan kaudimen ona dago.

**Dena den, gerrikoa denok estutu beharko omen dugu.**

Garbi dagoena da, eta ez duguna izango da, orain arte maileguetan izandako alaitasuna. Eta hori nabaritzen hasia dago eguneroko erosketetan. Jendeak jakin beharko du bere soldataren edo irabazien araberako biritza egiten. Hori nabarmenduko da. Gutxienez 5 urtera begira, gero auskalo. Eta hori ere ez da txarra. Beti gure neurrian bizi izan gara baina azkeneko 10 urteotan, kontsumo maila izugarria ikusten zen. Hori ikuspegi moral batetik ez da ona, desberdintasunak izugarriak dira. Baina ez da ona, garapen iraunkorraren kontrako portaera bat esan nahi duelako. Erabat azaleko gastua eginez, opor bidaiak... azkenean neurriarena, kontsumoan mugak daudela jakitea, batez ere belaunaldi batzuentzat, pedagogikoki ere ona da. Denok ezagutzen ditugu, belaunaldi gazteak, izugarriko gastu mailarekin.

Krisiak ikasteko eta hausnartzeko garaiak izan behar dute eta nik uste dut aukera hori ere ematen duela, pedagogikoki, gure neurria hartzen eta batez ere besteenarekikoarekiko lortzen. Batzuk izugarriko kontsumo mailarekin bizi izan dira eta ondoan, beste batzuk, akaso, iritsi ezinik

ibili izan direnean. Azkenean, zoriontsuak berdin-berdin izan gaitezke, gastu gutxiagorekin. Askotan jartzen da adibidea: ekonomian ez da zoriontasun maila neuritzen, baizik eta errenta maila, zoritxarrez. Baina zoriontasuna komentatu izan dugu, behar materialak ase ezinik dabilzan gizarteetan



ere zoriontasun handiko gizarteak direla, India kasu. Hainbestera iritsi gabe ere, kontsumoaren maila mugatzen jakiten ikasi behar dugu. Beste gizarte mota bat, beste era batera harremanak izaten, beste era batera kontsumitzen...

**2009. urtea urte txarra goa izango omen da gainera.**

Hor badaude azti batzuk, erakunde multilateraletan eta sekulako amorrua diet horiei. Lehenengo egiten dutena da, gertatzen den desastre honetarako baldintzak ipini eta gero desastrea iristen denean sua itzali beharrean sua gehiago haizatu dutenak. Askotan ematen du, sistemaren kolapso orokorra nahi dutela, hori baita lortzen dutena beraien adierazpenarekin. Burtsa %20 gehiago jaitsiko dela esan eta burtsa oraindik ere

gehiago jaitsi zen. Askotan ez dut ulertzen horrelako aldarrikapenak nondik nora edo zein helburuk bultzatuta egiten duten.

Urtebeteko atzerapena? Badirudi baietz. Nahiz eta eszenatokirik onenean ere burtsak poliki-poliki hobera egiten hasi, horrek ekonomia errealean ezinbestean izango duen eragina, bai produkzioan, bai kontsumoan izango da. Urtebete iraun dezake. Hortik aurrera, batek daki.

Egoera honetatik hainbat gauza gerta daitezke, hainbat mugimendu eratorri daitezke. Besteak beste, orain gelditu egin delako, baina energia krisiaren era-



gina hor dago. Petrolioaren prezioa jaitsi egin delako ixildu da. Baina hori ere, edozein momentutan berriro ere hazi daitekeen elementua da. Momentuan irtenbidetxo bat eman zaio jaitsierarekin, baina arazoa hor dago. Epe luzera energiaren arazoari irtenbidea eman gabe jarraitzen dugu.

Zenbait herrialdek izan dezaketzen jarrera ere hor dago. Krisiaren aurrean eta munduaren ordena berriro ezartzeko garaian. Txinak adibidez, asko dauka esate-

ko. Txinak egin dezake, bere posizioa are gehiago indartzeko saioa egin eta momentu honetan bere posizioa oso garrantzitsua da. Izan ere, Txinagatik aritu dira AEBetan beren mailaren gainetik bizitzen. Besteak beste, AEBetako arazo bat zen, ez bakarrik banketxeetan, gobernuak berak ere izugarriko defizita eta zorra izan duela azken 10 urteetan. Zor hori nola estaltzen zen? Txinako estatuak eta Txinako eragileek mailaguz eman izan dietelako amerikarrei. Beraien soberrakina konpentsatzen zuten AEBko diru eta kapital gabeziak. Horregatik mantendu da hainbeste urtean artifizialki ere AEBko bizitza maila. Orduan zer egingo duten txinatarrek?

Ikusi egin beharko da finantza sistemaren etorkizuna nola berbideratzen den. Gutxienez 20 herrialde nagusien artean finantza sistema ordenatzeko printzipioak jarri beharko dira. Irteera hori kontrolatua baldin bada eta horrek berbideratzea



lortzen badu finantza sistema bera, horrek ekonomia errealean egonkortasuna ekar dezake epe laburreragan.

Kasurik hoberenean, 2009an honen jarraipena izango da. Enpresa batzuek produkzio kopurua murriztu beharko dute, horrek batera, langile kopurua...

Munduko finantza sistema ez da berdina izango hemendik aurrera, hori zalantzarik gabe. Zein itxura hartuko duen, ez dakigu.

**E**statuaren parte harmenik gabe, sistemak berak porroterako baldintza guztiak ditu, merkatuak bakarrik ezin du bere bizitza bermatu.

Karmele Iturbe, psikologoa eta terapeuta:

## “Bakoitzak erabaki behar du nola utzi norbere buruari min egiten eta bizitza nola bideratu”

30 urte ditut. Zumarragan jaio, bizi eta lan egiten dut. Donostia eta Buenos Airesen ikasi eta lan egin nuen. Ezkondua nago eta seme bat dut. Oso garrantzitsua da geure burua onatu eta ezagutzea, garapena eta norbere askatasuna indartzeko. Nola definituko nintzateke? Ez dut erabateko egietan sinesten, baina bai saio batzuen magia. Pertsona bakoitza bakarra da. Terapeuta bezala nere eginbeharra bezeroaren barne iraultzan ahal dudana arte laguntzea da. Horretarako nire esku ditudan lanabes guztiak erabiliaz: psikologia humanistatik hasi eta meditazioraino, elikadura edo gorputzaren ezaguera alboratu utzi gabe.

### Zure kontsulta Jung, Jodorosky, Osho, psikologia Budista... liburuz beteta dago.

Nire erreferenteak dira. Bezero bakoitzarekin lan egiteko modu partikularra naturalki sortzen da pertsonaren ezaugarri eta beharretara moldatuz. Bakoitzak erabaki behar du nola utzi norbere buruari min egiten, bizitza nola bideratu eta zein itun hautsi. Ni ilunpean foku bat besterik ez naiz: begirada zabaltzen laguntzen diet, beraien benetako arazoez jabetu eta irtenbideak aurkitzeko. Terapeuta bezala nere bilakaerak aukerarik sakonena terapia holistikoa eskaintzea dela erakutsi dit, barne behaketa teknikak, eutonia, osteopatia, elikadura... erabiliaz.

### Emakume talde batekin lanean ari zarela jakin izan dugu.

Bai. Meditazioa, lasaikuntza, isiltasuna, irakurketa... erabiliaz ari gara lanean. Esperientziak elkarbanatzen ditugu eta gure ondorioak emozionalki osatzen eta gauzatzen saiatzen gara. Emakume izateagatik errepikatzen ditugun patroik mingarriak argitzen ditugu. Esklabutza, menpekotasuna, norbere boterea onartzeko zailtasuna, penrtamendu korapilotsua,

dena kontrolpean izateko nahia... arruntak dira emakumeen artean. Oso polita da hauetan sakontzea emakume izateagatik ditugun beste ezaugarri osasuntsuak garatzen ditugun aldi berean: intuizioa, izaera zikliko eta kooperatzailea, enpatia, sentsibilitatea... Taldea, kide bakoitzak bere emakume izateko modu partikular osasuntsu eta zoriontsua bilatzen laguntzeko prestatua dago, rol sozialetik haruntzago eta edozein estereotipotatik babestuak. Zenbait emakumeek lan bera egiten dute barkarkako saioetan, erosoago sentitzen baitira taldean baina.

### Gaur egun zerk larritzen edo estutzen gaitu gehien?

Jendea kontsultara arazo zehatzekin dator: "ezin dut lo egin", "nire alabak porroak erretzen ditu", "gehiegi jaten dut" "ez dakit homosexuala naizena" "ez dut nire bikotea ulertzen"... Garrantzitsua da kontsultaren zergatia tratatzea, baina askotan desoreka handiagoa ezkututzen du, hori identifikatu eta lantzea ezinbestekoa da. Bizitza blokeatzea bultzatu duen egoera hori askatu egin behar da, sintomaren atzean dagoen zauria sendatzeak ondo-



rio positiboak ekartzen baititu organismo oso arengan. Hori da terapiaren muina.

### Eta gizonak zer?

Lan eta bikote arazoak izaten dira arruntenak. Bi hauek nola orekatu, nagusi edo lankideekin arazoak edota erresponzabilitatez itota etortzen dira. "Ez dakit bikotearekin nola asmatu" izaten da esaldi errepikatuen, garai zail xamarrak ditugu bikoteentzako.

### Zenbat irauten du tratamendu bakoitzak?

Saio bakoitzak ordu eta erdi inguru irauten du. Lehenengo jardunalditik bigarrenera normalean 15 egun pasatzen dira, hortik aurrera bi, hiru edo lau hastero elkartzen gara kontsultaren zergatia zuzendu arte.

### Aholkuren bat?

Xamanek diote piezak txukundu behar direla puzlea osatu ahal izateko.



Psikologa • Psikoterapeuta

**Karmele Iturbe Eguren**

☎ 676 300 582

Hiri Lorategia, 15 esk.

ZUMARRAGA

# Jose Mari Faus ordiziar ornitologoa, hegaztien zelatari



Arrano sugejalea, *Circaetus gallicus*, Unxeko San Martinen. Arg.: Jose Mari Faus



**Errehabilitazioa**

**Masaje terapeutikoa**

**Kirol masajeak**

**Lunbalgiak eta ziatalgiak**

**Drenaje linfatikoa**

**Kinesiologia**

Naiara Gómez Larrea  
Kol.zkia.: 1466

**Ordegia:**  
astelehentik  
ostiralera  
9:00 - 13:00  
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32

# IÑAKI ARIN aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN

Hegaztien migrazio garaian sartuak gaude bete-betean. Hainbeste hegaztiren hegaldi luzeekin naturak ikuskitzen du dotorea eskaintzen du benetan. Jende asko dago egun hauetan zerura begira: batetik, ehiztariak, usoen zain daude; bestetik, ornitologoak eta natura zaleak, ikuskizunaz gozatzeko gozoz.

Jose Mari Faus ordiziar ornitologoa horietariko bat da. Hegaztiak ederki ezagutzen ditu. Baita hegaztien jokaerak eta ohiturak ere. Hegazti migrazioaren inguruko lezioa eman digu ordiziarrek.

Hasteko, hegaztien migrazioa, abuztuaren 4an hasi zela esan digu. “Sorbeltzak abuztuaren 4an pasatu dira aurten. Normalean, abuztuaren 10a baino lehen pasatzen dira”. Oso txori berezia dela adierazi digu ordiziarrek. “Herrietan ibiltzen dira, beti bueltaka. Ez dira gelditu ere egiten urte gutzian. Airean ibiltzen dira. Habia egiteko teiltuetan sartzen dira baina bestela ez dira gelditu ere egiten. Hori izaten da hemendik mugitzen lehena”.

Iraila erdi aldera, hemen bertako enarek ere alde egiten dute. “Hemengoak joanda daude, irailean joan ziren. Pasekoak etorriko dira. Hego Afrikaraino joaten direnak badaude baina gehienak Afrika Tropikalean gelditzen dira. Ingalaterratik Hego Afrikaraino joandakoa badira”, dio ordiziarrek.

Dena den, mugimendu handiena egoten dena, ikusgarriena, urria-azaroan izaten dira, batez ere usoen pasearekin. “Usoak eta orain pasatzen dira. Eta halako banda handiak izatearren dira, ikusgarriena horixe izaten da. Gehienak, urri bukaera edo azaro hasieran. Oso polita izaten da. Tamaina dezentekoa da, banda handitan pasatzen da...”.

Erreportaje hau egiteko, urriaren 17an egon ginen



**Jose Mari Faus: “Nafarroan gozatu egiten genuen, begazti gebiago zegoelako. Argazki makinarekin makina bat argazki ateratakoa naiz. Aranzadiko batzuk filmatu zuten dokumental bat: ‘Navarra agreste’”.**

## Pirinioetara larunbatero

Katalejuak hartu eta larunbat arratsaldeetan hitzordua izaten zuten, Monrealean, Nafarroan. “Ezkonduta arte, astebukaerero Pirinioetara joaten nintzen saiak eta uhatzak ikusi, argazkiak atera eta eraztuntzera. Larunbat goizean lana egiten zen eta arratsaldean, Monrealean gelditzen ginen. Arbaiunen aritzen ginen eraztunak jartzen. Habieta jaitsi eta kumeak eraztuntzen genituen”.

### Saiak

Saiaren bilakaera ondo ezagutzen du Jose Mari Fausek. “Garai hartan gutxi zeuden. 40 bat bikote egongo ziren, eta gaur egun 400 bikote daude. Gainera, koloniak galtzen ari ziren, janaririk ez zeukatelako. Garai hartara arte, gurdia mandoeekin ibiltzen ziren eta traktorea etorri zen gero. Mandoak gutxitu ziren. Lehenengo jangela Monrealean jarri genuen”.

Ugalketaren arrazoia zein izango den ez daki zehatz. “Orain asko ugaltzen dira. Baina zenbaitetan arazoak ere sortzen dituzte, bizirik dauden abereak erosotuz. Orain 2-3 urte, Europatik arau bat etorri zen, mihi urdinaren kasuaren ondorioz: hildako ganadu guztia erretiratu egin behar dela. Beraz, jan falta daukate. Gosez amorratzen daude. Saia mehe meheak ikusten dira, hegan egiteko indarririk gabe”, azpimarratu du ordiziarrek.

Datu bat eman du Fausek. “Atlasa egiten hasi ginenean, Gipuzkoan ez zegoen batez beste sairik. Aralarren, Mailoetan bakarrik zeuden. Atlasa egiten ari ginela, Ataunen, Intzartzu harkaitzean asko gelditzen zirela konturatu nintzen. Eskalatzailerik bat etorri zitzaidan, habian, ia biluzik zeuden txori handi batzuk zeudela esanez. 1980-81. urtea izango zen. Gero eta gehiago hasi ziren”.

Fausekin eta oraindik behintzat, uso gehiegi pasatu gabe zegoen. “Urriaren 10 inguruan dezente pasatzen baina harrezkerotzik gelditu egin da. Birigarrotan dabil jendea”.

Iaz Goierri ingurutik gutxi pasatu ziren, hego haizeirik ez zen izan eta. “Pasatu, urtero pasatzen dira. Eguraldiaren arabera, alde batek edo bestetik joango dira. Hego haizea edo arraizea

behar da hemen usoak ikusteko. Hegoa edo hegoekialdea. Iaz aurretik etortzen zitzaien haizea eta Pirinio gainetik pasatzeko haize horrekin oso gaizki ibiltzen dira. Orduan zer egiten


dute? Pirinio bukaeraraino etortzen dira eta itsasotik pasatzen dira baina ez zaie gustatzen. Lehorreko hegaztiei normalean ez zaie gustatzen itsaso gainetik pasatzea baina haizeak bultza egiten diete eta batzutan Landak inguruan sartzen itsasora. Hainbeste haize ez badago, Oria ibaiaren haranetik etortzen dira. Haizeak oso indarrean jotzen baldin badu Murumendi aldera jotzen dute. Edo bestela, Aralar edo Aizkorri aldetik”, adierazi du Fausek.

Gauzez nahiz egunez pasatzen dira hegaztiak. Intsektu jaleak adibidez, gauzez. “Gauzez pasatzen direnak, izarrekin gidatzen dira. Gainerakoak, eguzkiarekin”. Hori horrela dela ziurtatzeko proba bat baino gehiago egin izan da planetarioetan eta eguzkiaren argiarekin. Dena den, “hegazti batzuk, uhin elektromagnetikoak dituztela esaten da. Adibidez, uso mezulariek”, zehaztu du Fausek.

### Elurrarengandik ihesi, janari bila

Migrazioa egiten duten hegaztiak Afrikara joaten direnaren ustea okerra da ordiziarrak zehaztu duenez. “Hegazti gehienak ez dira Iberiar Penintsulatik ateratzen”. Elurrarengandik ihesi ibiltzen dira hegaztiak, elurrarekin, janaria estalita gelditzen baitzaie. “Migrazioaren arrazoia, janaria izaten da, eta ez eguraldia. Probak eginda daude eta enarei janaria emanez gero, hotzarekin ere bertan gelditzen dira. Kontua da, hotzarekin, eltxoak eta erleak desagertu egiten direla eta enarak janaririk ez duenez, janaren bila joaten direla. Hotzagatik joaten dira, baina hotzaren ondorioz jan gutxiago dutelako”, argitu du Fausek.

Usoen adibidea ere jarri du ordiziarrak. “Finlandia, Suedia, Norvegia, Errusia mendebaldetik eta Alemaniatik etortzen dira. Herrial-



*Ezkerreko orkidearen argazkia Ataunen ateratakoa da, eskuinekoa Goñin. Argazkiak Jose Mari Faus*

## Orkideen argazki bilduma

Naturako hainbat elementuren diapositiba eta argazki bilduma du Jose Mari Fausek. Hegaztiena du bildumarik handiena. Dena den, azkenaldian, osasun arazoengatik mendian nahi adina ibili ezin daitekeenez, inguruko orkideak aurkitzen aitzen da ordiziarra. Dagoeneko 39 orkidea mota ezberdin aurkitu eta guztiak argazkietan bildu ditu. Orkideetan ere aditua da ordiziarra. “Aditua ez, afizionatua. Aditua, hegaztietan naiz”, aitortu du.

Ordiziarrak oso landare bereziak dira ordiziarrentzat. “Intsektuen imitatzaileak dira. Polinizatzaileak dira. Somorroak jatera joaten direnean, zaku polinikoak erantsita geratzen zaizkie somorroei. Beste lore batera joaten direnean, bertan uzten dute”.

de horietan, eguna oso motza da eta elurrarekin ezkurra tapatu egiten da. Portugal eta Extremadura aldera joaten dira gehienak. Alentejo eta inguru horretara Afrikara ez dira pasatzen, jende askok hala uste badu ere”, zehaztu du. Dena den, euria denon gustura sekula egiten ez duela eta, “bertako jendeari ez zaio gustatzen, txerriei ezkurra kentzen dietelako. Gaur egun negozio ederra badute ere,

garai batean, izutzeagatik, etxafuegoak botatzen zituzten, izutu eta alde egiteko”.

Garai batean, urrutira joan gabe, Urbanan ere uso asko gelditzen omen ziren, elurra egin artean. Frantziako Landetan ere bai. “Urbanan adibidez, asko gelditu izan dira, elurra egin arte. Gaur egun Landatan ere asko gelditzen dira. Arto asko dago. Elurra egin arte han gelditzen dira. Gabonetan usoak pasatzen ikusita na-

go, Landatan elurra egin ondoren”.

Honezkero iparraldeko herrialdeetatik abiatuko ziren usoak. Hemendik ere pasatzen ari dira pixkanaka. “Ekaitz golpeekin mugitzen dira. Usoak Pilarikan batzuk baina gehienak urri bukaeran, Santu Guztien egun inguruan pasatzen dira. Suedia aldean eguraldi oso txarra baldin badago janaririk gabe gelditzen direnean, Alemania aldera joaten dira eta han eguraldi ona badago, bertan geldituko dira”. Beraz, Europako eguraldi iragarpenei begira egongo dira ehiztariak.

Usoek adibidez, zenbat kilometro egin ditzaketen galdetu diogu ordiziarri.

**S**orbeltzak izaten dira lehenak pasatzen. Abuztuaren 4an pasatu ziren.



“Ez dago esaterik. Gauza bat da egin dezakeetena eta bestea egiten dutena. Ekaitza atzetik baldin badator, ahalik eta gehiena egingo dute baina gehiengan, etapaka egiten dute. 100 kilometroka gutxi gorabehera. Jana bilatzen badute lasai bertan gelditzen dira.

### Hegaztien joerak

Hegazti mota askok egiten dute migrazioa. Denak aipatzea ezinezkoa da. Usoa eta enara aipatu ditugu, orain antzarrak eta birigarroak aipatuko ditugu.

Antzarrak berekin negua dakarrela esan ohi da eta esaera hori egia ote den jakin nahi izan dugu. “Egia da bai antzarrak ipurdian ekaitza erantsita ekartzten duela”, dio Fausek.

Birigarroaz ere eman digu lezioa: “hemen bertan badago birigarroa, kantu polita daukana. Pasean datorrenak, hegapea, gorrixa izaten du. Hemengoa handiagoa da. Gaztea nintzenen, birigarroari tiro egitea kartutxo alperrik gastatzea zela esaten zen. Gaur egun ia, ehiza larria da. Birigarrotarako postuak ere ari dira eskaintzen gaur egun”. Bixikeria bat kontatu digu gai honen inguruan: “Garai ba-



**Birigarro txikia - *Turdus iliacus***  
Arg.: Jose Mari Faus

tean, Gaintzako postuetan ez zuten uzten 10ak-11ak arte birigarroari tiro egiten, usoak izutzen zirelakoan”.

### Ehiztariak, errespetutsuagoak

Goierriin, hegaztien pasea ikusteko lekuri egokienak zeintzuk diren galdetuta, honela erantzun digu irripa-

rrez: “ehiztariak egoten diren lekuak”.

Eta jakina, ehiztariek eta ehizaz ere galdetu egin behar. “Pena ematen dit hegaztiak hiltzeak. Dena den, umetan ehiztaria izandakoa naiz. Eskolara joan aurretik zepoa jarrita uzten genuen eta errekreoan bila joaten ginen. Habi bila ibiltzen ginen, eta tiragomarekin ere bai”, aitortu du ordizarrak.

Dena den, oraingo ehiztariak errespetu gehiago daukatelakoan dago. “Ez dakit zergatik den: jendea kontzientziatuagoa dagoelako edo gaur egun ertzaina dagoelako. Lehen Guardia Zibila bakarrik zegoen eta horiek ez ziren basora sartzen eta edozer botatzen zen. Dena den, zauritutako hegazti ugari azaltzen da oraindik ere”.

Hori bai, Fausek ez du oso ondo ulertzen postuen kontua. “Aizkorriko kontraz zenbat diru botatzen duten!!! Jendea ez dago burutik sano, eta askotan ezer ez botatzeko”.

## “Kanturik politena, urretxindorrarena”

### Hegaztirik politena:

Zaila da esatea. Miru gorria oso polita da. Asko pasatzen da hemendik, baina beranduego. Txorietan, Martin arrantzalea eta argi oilarra.

### Ikusten zailena:

Uhatza, gutxi dagoelako. Entzuteko erraza eta ikusteko zaila dena, urretxindorra da. Sagua bezala ibiltzen da sastraka artean. Hemen ez da gelditzen. Lizarra aldean bai, udaberri-udan. Gauzez kantatzen du eta oso kantu indartsua da. Kanturik politena duena da.

### Azkarrena, bixkorrena:

Beleak. Klase guztietakoak. Hegazti eboluzionatuenak dira. Gauzak ikusteko, bixkorrenak dira. Adibide bat: bele txikia. Behin, saiaren habiak zaintzen ari nintzen, harkaitz batean igota eta parean bele txikiak zeuden. Saiak habi sinpleak egiten dituzte. Saiak arrautzak otsailan jartzen ditu eta bele txikiak apirilean. Bele txikiak bikote bat habia egiten ari zen. Batek saia engainatzen zuen eta besteak beste aldetik, saiaren habiko txotxak eta belartxoak hartzen zituen. Exkixuak ere bixkorrenak dira.

### Azkar eta ondo, usoak hegan.

Bai hala da. Ahateak ere bai, oso dotoreak dira.

**E**gia da bai  
antzarrak ipurdian  
ekaitza erantsita  
ekarten duela.

 **ARANDIA**  
SSANGYONG  
 **GARAJEA**  
LADA Autoen konponketa  
N-1, z/g lurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

 **SILVIA MIRAS CASASAYAS**  
ODONTOLOGOIA  
KOL. Zka. 649 RFS: 223/07  
TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

# Aranzadi elkarteko kidea



**Jose Mari Faus:**  
*“Japonia sareekin  
barrapatzen genituen  
txoriak. Behin sarean  
txiio txori txiki bat  
barrapatu genuen. 6-  
8 gramo zituen.  
Parisen bezperan  
eraztunduta zegoen.  
Egun batean iritsi zen  
Donostiara”.*

## Hegaztien euskarazko izenen bilketa

Jose Mari Fausek, kimika ikasketak egin zituen Zaragozan. Orduan ezagutu zuen Josean Albisu, gaur egun, Igeldoko Arrano Etxeko arduraduna dena. Hark eman zion Aranzadi elkatearen berri. Txoriak eta hegaztiak asko gustatzen zitzaizkiola eta, Albisuri eta Elosegiri esker, murgildu zen ornitologiaren munduan. “1959 ingurua izango zen Aranzadiko bazkide egin nintzenean. Santo Tomas egun batean, Donostiara joan eta San Telmora joan ginen. Orduan, han zuen bulegoa”, gogoratu du Jose Mari Fausek. 20 bat urte egin zituen Aranzadin.

Hegaztien izenak eta ezaugarriak biltzen zituen liburu-rik ez zen 50.eko hamarkadan. “1955ean Frantzia liburu bat atera zen eta Albisuk eman zidan. Europako hegaztien izenak, argazkiak eta ezaugarriak biltzen ziren. Liburu eder-rra zen”.

Handik gutxira, Iberiar penintsulakoa egitea erabaki zuten eta Aranzadi euskarazko txori izenak biltzen aritu zen. “Herriz herri aritu ginen biltzen. Ni, Goierri inguruan ibili nintzen. Herri batetik bestera, txori berari era ezberdina deitu izan zaio. Txantxangorriari gehienez txantxangorria deitzen zaio. Baztan aldean ordea, papargorria”, zehaztu du Jose Mari Fausek. 20 izen dituen txoria ere aurkitu uten: lapurtxoria, artatxoria, ormatxoria, burgoia... “Goierri bertan, 5-6 ditu” gaineratu du.

Asmatu ere asmatu behar izan zituzten izenak, hainbat hegazti hemen ibiltzen ez zenez, ez baitzeukaten euskarazko izenik. “Dena den, presaka ibili diren eta gerora osatzen joan ginen. Quebrantahuesos-ekin adibidez, hezur xehatzailea izena jarri genion, itzulpen zuzena eginda. Gero-rra jakin zuten, euskaraz bazuela izena: uhatza”.

1980 inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko Ornodunen Atlas zuzendu zuen Fausek. 10 kilometrokako azterketa egin zuten. EAEn habia egiten zuten hegaztiak hartu zituzten kontuan.

## Eraztunen bidezko informazioa

Aranzadi elkartea aintzindaria izan zen hegaztiei eraztunak jartzen. Isidro Aizpuru ordiziarrek egiten zituen eraztunak. “Aluminiozko tirak izaten ziren eta punzoiarekin banakabanaka, Aranzadi, hegaztiaren arabera neurriari zegokion letra eta zenbaki bat jartzen zuten. Eraztunekin Europa guztiko informazioa biltzen. Hemen ehizatirean batek hegaztiren bat eraztunarekin harrapatuz gero, Aranzadira bidaltzen zuten. Aranzadik jatorriko lekura bidali eta handik, hegaztiaren fitxa bidaltzen dute, teorikoki zein ibilbide egin duen zehaztuz”, zehaztu du.

Era honetan, informazio asko lortu ahal izan da. Esate baterako, “Europar uste zen saia ez zela mugitzen. Baina Aranzadik jarritako eraztunengatik jakin zen, saia gazteek migrazioa egiten zutela. Andaluzia eta Maroko aldera joaten dira”.

Espanian, Doñanan ere ibili ziren hegaztiei eraztunak jartzen. Urtero joaten ziren. “Doñanan lertxunak eraztuntzen ibili ginen eta ikusi genuen Atlantikoaren beste alde-rra joaten zirela, Brasil, Errepublika Dominikarra, Venezuel... han uste zuten lertxun espezie berria zela. Haize boladaren bat aprobetxatuz joaten ziren. Lertxuna izan da, Atlantikoa gurutzatu duen itsasokoa ez den lehen hegaztia. Ganaduari mokoka aritzen zaio, kapastak-eta jaten”.

Euskal Herrian ere bada antzeko kasurik. “Buitroia adibidez. Klima berotzen ari delako edo, Plaiaundin, Orioko zingiretan, Zumaian... azaldu izan da. Doñanan ezagutu genuen eta pixkanaka iparraldera etorri da. Gu atlasa egiten ari ginela, ez zegoen. Udaberrian hemen bertan habiak egindakoak hartu genituen kontuan. Buitron honen izena asmatu egin behar izan genuen, artean hemen ez zelako ezagutzen. Barrualdera sartzen ere hasi zen. Baina 1985ean elur dezente egin zuen eta desagertu egin zen. Negu epe-llak behar ditu. Orain berriz ere badaude”, azpimarratu du Jose Mari Fausek.



# Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAITZA  
PAREGABEA

## Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:  
**3.300€**  
(BEZ kanpo).

+

**KREDIGAS**  
finantziazio berezia,  
instalazioa hileko kuota erosotan  
finantzatzeko.

+

**570€**  
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetat baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina  
www.naturgasenergia.com



**naturgas  
energia**

# Celia Mamani boliviarrak

*Duela bi urte etorri zen Goierrira. Beasainen bizi da*



**C**elia Mamani boliviarrak da. 2006ko uztailaren 14an hartu zuen hegazkina, La Pazen. Bakarrik. Bi egun beranduagoa, Gaintzan aari zen lanean. Gaur egun, senarrarekin eta bi semerekin Beasainen bizi da.

Ez zaio sekulakoan Celia Mamani 2006ko uztailaren 14a ahaztuko. Senarra eta 10 eta 3 urteko semeak Bolivian utzi, hegazkina hartu eta bizimodu hobea baten bila Goierrira etorri zen. “Ez zait inoiz ahaztuko nola gelditu ziren aireportuan negarrez”, gogoratu du minez Celia Mamani.

Ofizialki, turista bezala etorri zen, hiru urterako. Praktikan, lanera etorri zen.

Erabaki gogorra eta zaila izan zen benetan Celiarentzat. Honela kontatu digu Bolivian bizi zuen egoera. “Esneki enpresa batean lana egiten nuen. Salmenta arloan bezero kopuru zabala egina neukan. Esnekiaren mundua gertutik ezagutzen nuenez, nik neuk esneki enpresa bat sortzea pentsatu nuen baina ez nuen aukerarik izan. Ekonomikoki ezin nuen eta eta abizenik ere ez nuen”, argitu du.

Zukuak egin eta saltzen hasi ziren senarra eta biak.

Senarra, ingeniari agronomoa da. “Zukuak saltzen oso gaizki sentitzen nintzen. Salmenten gainbegirale izatetik zukuak saltzera pasatzea ezin nuen eraman, oso gaizki sentitzen nintzen. Oso gaizki pasatu nuen eta aurpegiko paralisia izan nuen”, gogoratu du boliviarrak.

Eta halako batean, bizitza aldatu zitzaion. “Lagun batek esan zidan; goazen Espainiara, han oso ondo irabazten dela esaten dute. Ezinezkoa zela esan nion.

Nire senarrarengatik eta haurrengatik banatu, ezta pentsatu ere! Momentu batean senarrari gure egoera ekonomikoa azaldu nion. Ez joatea nahiago zuela, baina bazekiela European emakumezkoek gizonezkoek baino aukera gehiago zeukatela. Erabaki gogorra, latza izan zen, umeak eta senarra Bolivian uztea”.

Hilabete batean erabaki zuen familia utzi eta Atlantikoa zeharkatzea. “Uztailaren lehenengo egunean hasi nintzen etortzen, baina ezin... azkenean, 14an etorri nintzen”.

## **Boliviatik Gaintzara**

Hegazkinean sartu eta bizitza berria hasi zen Celia Mamaniarentzat. Hegazkinean beste emakumezko boliviarrak

**G**aizki sentitzen nintzen iruditzen baitezaidan ama batek sekula ez lukeela horrelako erabaki bat hartu behar.

bat ezagutu zuen. Haren bidetz, Iruñara joan zen, lan bila. “Ez nuen pentsatu, Madridlgo aireportura iritsitakoan nora joango ote nintzen. Baina izugarritzko zortea izan nuen. Urtebete zera-man Iruñan. 500 dolarrekin etorri nintzen, 350 euro. 45 euroekin gelditu nintzen. Ama Pilarrena joan nintzen eta uztailearen 16rako Gaintzan nengoen lanean, jate-txe batean. Bertan bizi nintzen. Taberna garbitu eta haurrak zaintzen nituen. Gizen samarra etorri nintzen eta asko argaldu nintzen. Orain arte zortea izan dut baina ama mina hor zegoen, umeak han uztea...”, azpimarratu du Celiak. “Oso erabaki gogorra izan zen. Gaizki sentitzen nintzen iruditzen baizitzaidan ama batek sekula ez lukeela horrelako erabaki bat hartu behar. Haurrak ezin ekarri dabiltzan etorkinak oso ondo ulertzen ditut. Zer nolako hutsunea den”.

### Hirugarren hilabetarako senarraren bila

Dena den, bakardadeak ez zuen askorik iraun. “Jatetxe-ko leku batean ‘Negar egite-

ko txokoa’ neukan. Tabernako bezero batek bi aldiz harrapatu ninduen negarrez. Zer nahi nuen galdetu zidan. Bi aldiz pentsatu gabe, “nire senarrarentzat paperak” erantzun nuen. Zer ziren ere ez nekien. Bezeroak lortu zizkidan paperak eta hiru hilabetarako, Bolivian nintzen berriz”, gogoratu du boliviarrak.

Oraingoan senarrarekin itzuliko zen Goierriera. Senarra, okin lanean hasi zen. “Begira zer nolako zortea izan nuen. Hiru urterako etorri nintzen eta hiru hilabetarako itzuli nintzen senarraren bila. Haurrak ekartzea, zailagoa eta luzeagoa izaten da, urtebete inguru behar izaten da”, aitortu du Celiak.

Baina beste hiru hilabetera berriz itzuli behar izan zuen. “Txikienak ez zuen jaten. Hezur eta azal gelditu zen. Hegazkin guztiei begira gelditzen zen eta amama oiuhukatzen zuen”. Beraz, ahalik eta azkarren pasaporte egin eta bi haurrekin itzuli zen Goierriera. Ordian ere zortea izan zuen. “460 lagun etorri ginen hegaldian eta 7 pertsona baka-

## Euskara ikasten

Hori bai, haurrekin egoteko denbora gutxi duela aitortzen du Celiak, eta aurreztea zaila dela.

Semeak ere ondo moldatu dira eta oso gustura bizi dira. “Uste nuen seme zaharrenak ez zuela euskararik ikasiko baina oso ondo ikasi du. Gu, etxean, aitaxo eta amaxo gara, ez, papa eta mama. Laster nire ama etorriko da haurrak zaintzera eta amona deitzen diote”, azpimarratu du. Celiak berak ere, euskara ikasteko gogoia badu, “joaten den lekura, kulturara eta hizkuntzara egokitu behar da”, aitortu du.

rrik pasatu ginen. Izugarritzko zortea izan genuen”.

### Beasainen

Behin eta berriz aitortu duenez, zortea lagun izan du Celia Mamanik. Geriatriko-ko laguntzaile ikastaroa egin zuen eta Zumarragako Argixaon ari da lanean, gauez. Goizetan, adineko pertsona bat zaintzen du Beasainen. “Erizain laguntzaile ikastaroa egitea gustatuko litzaidake eta ospitale-aren batean lan egin”, kontatu du boliviarrak.

Etxebizitza ere poliki-poliki osatzen joan dira. Laguntza izan du horretarako ere. “Alokatu genuen pisua ekonomikoki ondo zegoen, baina hutsik zegoen. Lan egiten nuen lekuan, goilarak, platerak... eman zizkidaten. Zeretik hasi gara. Arroparik ere ez neukan. Haurren bila joan nintzenen dena han utzi nuen eta. Baina ez naiz damutzen egin dudana”.

Beasain iruditzen zaio inguruko herririk politena eta pozik bizi da bertan. “Dena, modernoa iruditzen zait”, dio.

### Etorkizunari begira

Hamar urte barru, bere burua non ikusten duen galdetu diogu, Beasainen ala Bolivian. “Senarrak eta biok Boliviara joango garela esaten dugu, gure familia han dagoelako. Baina haurrek ez dute joan nahi. Zaharrenek, hemendik 10 urtera, 22 urte edukiko ditu eta gazteenak 15. Agian hauek ez dute joan nahiko. Auskaloi!”.

Bihotza dena den, Bolivian dauka. “Bihotza erdibituta daukat”, aitortu du. Amonaren hutsunea da gehien nabari duena. “Berak hazi ninduen. Nik gehiena behar izan nuenean, bera hor egon zen eta orain, ni gehien behar nauenean, ezin naiz berarekin egon”.

**J**oaten den lekura joanda, bertako kulturara eta hizkuntzara egokitu behar da.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



### ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

## SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako  
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

Beasain

## Udazken kulturala

### Urriak 24, ostirala:

**20:15ean:** Antzerki amateurra: 'Ninette y un señor de Murcia', Afariescenaren eskutik. Usurbe antzokian. Sarrera: 4 euro.

### Urriak 25, larunbata:

**17:00etan:** Haur antzerkia: Teatro Paraisoren 'Lorategian', 1 eta 3 urte bitarteko haurrentzat. Usurbe antzokian. Sarrera: 4 euro.

**19:00etan:** Txistularien eguna. Goierriko txistulariekin kalejira. 19:30ean, txistu-kontzertua. Loinazko San Martin plazan.

### Urriak 26, igandea:

**10:00etan:** Igande goizeko irtenaldiak, Asmubetik.

**12:00etan:** Haurrentzako pintura tailerra, Joan Iturralde plazan.

### Urriak 28, asteartea:

**19:00etan:** Asmubeko abesbatzaren emanaldia, Rosario Mujikaren kontakizunak eta Pilar Materen olerkia. Udaletxeko aretoan.

### Urriak 29, asteazkena:

**17:30etan:** Bertsotxotxongiloak: 'Hitzen lapurra' ikuskitzuna. Udaletxeko Batzar aretoan.

### Urriak 30, osteguna:

**19:00etan:** Hitzaldia: 'Emakumearen parte hartzea eta ahalduntzea gizartean'. Udaletxeko Batzar aretoan.

### Urriak 31, ostirala:

**18:30etan:** Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.

**20:00etan:** 'Voces 8' abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zeruruaren parrokian.

**20:15ean:** Seiren taldearen emanaldia. Usurbe antzokian. Sarrera: 6 euro.



### Azaroak 1, larunbata:

**18:30ean:** Dantza jaialdia Aurtzaka dantza taldearekin, Loinazko San Martin plazan.

### Azaroak 2, igandea:

**08:00etan:** Mendi irteera Murumendira eta Garinera, 'Finalistaren eguna' ospatzeko.

**10:00etan:** Igande goizeko irtenaldiak, Asmube egoitza.

**18:30ean:** Dantzaki dantza eskolako irakasleen eta ikasleen dantza erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.

### Azaroak 3, astelehena:

**15:00etan:** Urbietako ikastaroen hasiera: marrazketa eta pintura ikastaroa. Urbietako arte plastikoetako zentroan.

### Azaroak 4, asteartea:

**09:00etan:** XX. Errezil sagar, fruitu eta barazki lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

**17:30ean:** Jolas eta kantu ikastaroaren hasiera, Gaztegunean.

**19:00etan:** Beasaingo Paperak bildumaren 16. zenbakia aurkezpena. Izenburua: 'Beasainek bere bilakera garraibide eta industriari zor. 1840-1940'. Usurbe antzokian.

### Azaroak 6, osteguna:

**18:00etan:** 'Emakumearen parte hartzea eta ahalduntzea gizartean' tailerraren hasiera.

**21:00etan:** Zine kluba: 'Caramel' filmaren proiektzioa. Usurbe antzokian. Sarrera: 3,50 euro.



**ZEGAMA  
OKINDEGIA**  
*Eskuz egindako ogi naturala*  
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

**SALMENTA PUNTUAK:**  
**Beasain:** Oskarbi, Osña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



**Erretegi bezala  
zabalik**

- \* Eguneroko menuak
- \* Karta zerbitzua
- \* Ospakizunak
- \* Plater konbinatuak

**Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO**



Lazkao

### III. Elkartasun eguna urriaren 25ean

Larunbat honetarako, urriak 25, Lazkaoko Topaguneak III. Elkartasun eguna antolatu du.

**12:00etan:** Giza katea.

**12:30etan:** Ekitaldia politikoa plazan.

**13:00etan:** Trikitilari eta bertsolariekin tabernaz taberna.

**14:30etan:** Herri bazkaria, plazako pilotalekuan.

**Menua:** txorizoa eta odolkia, paella erraldoia eta ijito besoa.

**Bertsolariak:** Iñaki Apalategi, Aitor Sarriegi, Aitzol Barandiaran eta Itsaso Paya.

**Ondoren:** euskal kantak.

**17:30etan:** Haur jolasak, plazan.

**19:00etan:** Helduen jolasak, plazan.

**22:30etan:** Kontzertua Gerrikon, Folson Four eta Aggressive Combat taldeekin.

Lazkao

## Kirolaren astea

Atzo, urriak 22 hasita, Kirolaren astea ari dira ospatzen Lazkaon. Jarraian duzue egitaraua:

### Urriak 23, osteguna:

**19:00etan,** Azeria Kultur gunean, Alberto Iñurrategiren 'Begiz begi' ikusentzunezkoa eta solasaldia.

### Urriak 24, ostirala:

**18:30etan,** plazako pilotalekuan, 'Emakumea pilotari: zergatik ez emakumeek ere pilotan?'. Pala partidua: Gipuzkoako elkarten arteko pilota partidua: Lazkao-Arrasateko.

### Urriak 25, larunbata:

**Goizean,** kiroldegian eta San Benito ikastolako patioetan, eskola kiroleko partidua.

**11:00etan,** Arizti Haundi futbol zelaian, emakumezko kadeteen futbol partidua: Lazkao - Anaitasuna.

**16:30etan,** Arizti Haundi futbol zelaian, emakumezko seniorren futbol partidua: Lazkao - Segura Goierri.

**18:00etan,** Joxemiel Barandiaran kiroldegian, areto futboleko partidua: Garetxe Lazkao - Hondarribia.

### Urriak 26, igandea:

**08:00etan,** herriko plazatik abiatuta, mendi irteera: finalista eguna Orion.

**11:00etan,** Arizti Haundi futbol zelaian, futbol partidua, kadeteak: Lazkao - Idiazabal.

Idiazabal

## Alberto Iñurrategiren 'Begiz begi'



Urriaren 29an, iluntzeko 7,30etan, Guraso Elkartearen, Alberto Iñurrategi mendizalearen 'Begiz begi' ikusentzunezkoa aukera izango da.



Ataun

## Hiru auzoetako korrikaldia

Datorren igandean, urriaren 26an, Ataungo Hiru auzoetako XXVIII. korrikaldia jokatu da, goizeko 11etan hasita, Ataun Kirol Elkarrekin antolatuta. 17,3 km.ko ibilbidea burutu beharko dute korrikalariak: San Martin (irteera), San Gregorio, Kaxeta, Aia, Kaxeta, San Gregorio, San Martin (helmuga). Izena aurretik ematea komeni da, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunean. 10 euro kostatuko da. Egunean bertan izena ere eman daiteke, 10:00ak baino lehen, 12 euro ordainduta.

## Beasain

### I. Mendi astea

Arrastaka Mendi Taldeak Beasaingo I. Mendi Astea antolatu du azaroaren 5etik 8ra. Talde honen asmoa datozen urteetan ere, Mendi Aste honi jarraipena ematea da, "Beasain, egun batzuetan bederen, Goierriko mendizale eta alpinista guztien erreferente izan dadin", diote.

Lehenengo aste honetan Goierriko hiru mendizale izango dira protagonista: Koke Lasa ormaiztegiarra, Pedro Garcia ordiziarra eta Ander Goitia beasaindarra.

#### Azaroak 5, asteazkena:

**19:30ean**, Udaletxeko batzar aretoan, Koke Lasaren Ama Dablametik (6.812 m.) Etik Chngtokera (7.045 m.) ikusentzunezkoa.

#### Azaroak 6, osteguna:

**19:30ean**, Udaletxeko batzar aretoan, Pedro Garciaeren Broak Peak (8.047 m.) buruzko diapositiba emanaldia.

#### Azaroak 7, ostirala:

**19:30ean**, Udaletxeko batzar aretoan, Ander Goitiaren 'Cordillera Blanca' ikusentzunezkoa.

#### Azaroak 8, larunbata:

**10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era**, Antzizar kiroldegiko rokodromoan, eskalada praktikatzan hasi nahi duten lehenengo urratsak emateko aukera izango dute.

## Beasain

### 'Heriotzaren pedagogia eraiki beharra dugu' hitzaldia

Murumendi eskolako Guraso elkarteak, 'heriotzaren pedagogia eraiki beharra daukagu' hitzaldia antolatu du, urriaren 23rako, udaletxeko Batzar aretoan 17:30etik 19:30era. Patxi Izagirre psikologoa izango da hizlaria.



## Zaldibia

### Ardiki eguna

Santa Fe jaiak bukatu berriak badira ere, festarako gogo badute oraindik ere zaldibiarrek. Urtero bezala, Ardiki eguna antolatu dute urriaren 26rako. Besteak beste, Zaldibiako Mondejuaren XIV. lehiaketa eta Aralarko XI. Gaztaren lehiaketa jokatu dira. Jarraian duzue egitaraua:

**10:30ean:** Diana, herriko txistulari, Juan Mari Beltran eta Astiazaran anaiekin taldeak eta Hernaniko Musika Eskolako albokalari, dultzainero eta txistulariek alaituta.

- Artisautza erakusketa. Ardi gazta, edo mondejuak egingen, telarra, artilea lantzen...

- Ganadu erakusketa, ardi eta ahari loteak, pottokak,...

- Salmenta azoka.

**12:00etan:** Zaldibiako XIV. Mondeju eta XI. Aralarko Gaztaren lehiaketak. Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus bertsolariekin batera plazan mondeju pintxoak dastatu ahal izango dira.

**12:30etan:** Artaldeek kalea zeharkatuko dute.

**13:30ean:** Sari banaketa.

**14:30ean:** Bazkaria.

**19:30ean:** Lagunarteko kalejira 2008ko Ardiki Egunari amaiera emateko.

## Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain

943 160 120 (arratsaldez)

www.ikaskide.net

#### ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

#### INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

#### IKASKETA TEKNIKAK

#### UNIBERTSITATE MAILA:


Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

#### INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**

### "Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



# GOKINDEGIA GARBIONA

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



Legorreta

## Kultur astea

### Urriak 23, osteguna:

**08:00etan:** Fernando Oliveiraren pintura erakusketa Aldaieta Jubilatutabernan.

**18:00etatik 20:00etara:** Emakumezkoentzako autodefentsa ikastaroa, Ugara ikastetxeko soinketa gelan.

**19:00etatik 20:00etara:** Bidezko merkataritza eta erakusketa Salbador Deunaren elizako zimitorioan.

**19:00etan:** Buruhandiak.

**19:00etan:** Hitzaldia: 'Ongi lo egiten ahalegindu hobeto bizitzeko', Herri Zineman.

**20:30ean:** I. Film laburren lehiaketara aurkeztutako lanen emanaldia. Ondoren, 'Solo mía' filma. Zineman.

### Urriak 24, ostirala:

**16:30etan:** Pote, igel eta toka txapelketa jubialtuentzat.

**18:00etatik 20:00etara:** Emakumezkoentzako autodefentsa ikastaroa trinkoa, Ugara ikastetxeko soinketa gelan.

**19:00etatik 20:00etara:** Bidezko Merkataritza eta erakusketa Salbador Deunaren elizako zimitorioan.

**19:00etan:** Buruhandiak.

**19:00etan:** 'Legorparty 2008' ordenagailu topaketaren hasiera Patxi Ezkiaga kultur etxean.

**23:00etan:** Legorretako XIV. Mus txapelketa Aldapa Haundi elkartearen.

### Urriak 25, larunbata:

**09:00etatik 13:00etara:** Emakumezkoentzako autodefentsa ikastaro trinkoa Ugara ikastetxeko soinketa gelan.

**16:00etan:** I. Goitibehera jaitsiera Koate auzoan.

**19:00etatik 20:00etara:** Bidezko Merkataritza eta erakusketa Salbador Deunaren elizako zimitorioan.

**20:00etan:** Dar-dar Produkzioak-en 'Eta zer?' emanaldia, Herri zineman.

**21:00etatik 24:00etara:** Garagardo azoka Harripila kiroldegian.

### Urriak 26, igandea:

**11:30etik 14:00etara:** Bidezko Merkataritza eta erakusketa Salbador Deunaren elizako zimitorioan.

**11:00etatik 14:30era:** Immigrazioaren azoka: Legorretan bizi diren etorkin komunitate desberdinen herrialdeetako produktuaren erakusketa eta dastaketa.

**12:45ean:** Harrera Inmigrantes komunitateei, Irrintzi Alai dantza taldearen eskutik.

**20:00etan:** 'Legorparty 2008' ordenagailu topaketaren amaiera Patxi Ezkiaga Kultur etxean.



Tel. eta Faxe: 943 886 558  
Poltsikoko tel.: 616 698 288  
Zubi-Erreka Industrialdea, 42  
LAZKAO  
toldosagustin.com  
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Ordizia

## Euskaraz Bai

### Urriak 24, ostirala:

**19:00etatik 21:00etara:** Euskaraz Bai adierazpenaren aldeko atxikimenduak jasoko dira, Plaza Nagusian.

**20:00etan:** Kantu jira, Kuxkuxtu txarangarekin. Plaza Nagusian hasiko da. **21:00etan:** Kantu afaria, Kuxkuxtu txarangarekin. Plaza Nagusian.

**23:00etan:** Herriko taldeen kontzertua: euskal abestien bertsoiak. Beti Alai pilotalekuaren kanpoko karpan.

### Urriak 25, larunbata:

**17:00etatik 19:00etara:** Sukaldaritza ikastaroa (Goierri Kolore ekimenaren barruko ekintza). Ondoren dastaketa. Plaza Nagusian.

**19:00etan:** Burrunbazale txaranga eta buruhandien kale-jira. Plaza Nagusian hasiko da.

### Urriak 26, igandea:

**12:30ean:** Oroith abesbatzak gidatutako kantu emanaldia. Plaza Nagusian hasiko da.

**18:00etan:** Jakintza eta Urdaneta dantza taldeen dantza emanaldia. Plaza Nagusian.

Goierri

## Goierri Kolore

### Urriak 23, ostegun:

**21:00etan:** Sustraiez Blai eta Goieniz zine klubak antolatuta, Iciar Bollainen 'Flores de otro mundo' filma Beasaingo Usurbe antzokian.

### Urriak 24, ostirala:

**19:00etan:** Ormaiztegiko udaletxean, Bata-n (bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrek) inguruko erakusketa eta bisita gidatua, Sos Arrazakeriaren eskutik.

### Urriak 25, larunbata:

**17:00etan:** Ordiziako plazan, munduko sukaldaritza ikastaroa, (Maroko, Ekuador, Bolivia, Errumania eta Euskal Herria) Delikatuz Elikadura eta Gastronomia Interpretazio zentroaren eta Euskaraz Bairen eskutik.

**19:00etan:** Ordiziako plazan, munduko janariaren dastaketa.

**22:00etan:** Samar taldearen musika jaialdia, Ordiziako plazan.



**GERTU**  
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK  
San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN  
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33  
gerlu@gertuasesores.com



**Gabirian misioak 1959. urteko martxoan**

- 1. ilaran ezkerretik eskuinera:** Aita Baxilio, Joxe Mari Iturbe (apaiza), Pablo Irizar Irastorza (alkatea), Xanti Agorreta (Urruti), Bautista Maiz (Eguzkiza), Joxe Asurabarrena (Astiazaran), Xerapio Jauregi (Agerretxemendi), Silbestre Arruabarrena (Aunditegi errota) eta Aita Anakleto.
- 2. ilaran:** Joxe Manuel Ormazabal (Urruti), Xerapio Elozegi (Oñatibitxiki), Arzelus (Errotaetxe), Juan Murua (Izarhaundi), Luzio Gabiria, Nikolas Alustiza (Oñatibihaundi), Joxe Migel Andola (Gorostazu), Joxe Izuzkiza (Olazkia-ga Azpi), ezezaguna, Ebaristo Arruabarrena (Aunditegi errota) eta Egiuren (Errotaetxe).
- 3. ilaran:** Antonio Garmendia (Noares), Prudentzio Ormazabal (Agerre), Nikolas Etxeberria (Urkiztegi), Dionisio Antia (Altolagirregarakoa), Tiburtzio Sagastizabal (Altolagirregarakoa), Joxe Bixente Izuzkiza (Jauregi), Baxilio Mandiola (Izartxiki), Patxi Peñagarikano (Gabirizar), Joxe Ariztimuño (Igeribar) eta ezezaguna.
- 4. ilaran:** Antonio Olariaga (Zantagoiti), Joxe Mari Goitia (Gabirizar), Luis Lasa (Etxeberribengoa), Joakin Iruin (Torea), Patxi Zabaleta (Jauregi), Eugenio Lizarazu (Zantagoiti), Legorburu (Arkatza), Arzelus (Errotaetxe) eta Felipe Gabilondo (Iguarain). **Atzeko ilaran:** Ormazabal (Landarregi) eta ezezaguna.

SUSTATZAILEAREN ZUZENKO SALMENTA

**Zegama**

Etxebizitza tasatuak · Azken duplexak

**BEREHALA EMATEKO**

**Altzaga**

Azken bifamiliarra,  
184m<sup>2</sup> lorategiarekin  
340.000+BEZ

**Segura**

5 etxebizitza,  
80m<sup>2</sup>-tik hasita  
258.000+BEZ

**Itsasondo**

Azken duplexak, 150m<sup>2</sup>  
333.000+BEZ

**ORMAZPEI, S.L.**

Informazioa: 943 857 354



Promoziokoak, Eraikuntzak,  
Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89  
ABALTZISKETA

**LOINAZARGI**

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO

Tel.: 943 164 846

627 505 687 (instalakuntzak) - 670 471 106 (mantenimendua)



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Mantenimendua
- Telekomunikabideak

**BARANDIARAN**  
**Zeramikak**

ERREF. MAK    DISEINUAK    PROIEKTUAK    BAINUAK    HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

## Goieritik 20 minutura...

Sukaldeak

Etzetresna elektrikoak

Bainugelak

Zeramikak


Horma-armairuak

Beheko suak



**LOPETEGI**  
*equipamiento integral de espacios*

Uriz kalea, 29  
Lakuntza (Nafarroa)  
Tel.: 948 57 60 68



[www.lopetegi.es](http://www.lopetegi.es)





**PRIUS**



Toyota Prius 22.500 eurotik

# EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926

BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



**TOYOTA**

[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)